

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

POBESKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Luberritzeen aprobetxamenduaren errentamendu lehiaketa

2025eko irailaren 7ko erabakiaren bidez, Pobeseko auzo batzarrak, kontzeju irekian bilduta, onespena eman zion kontzejuko luberrien aprobetxamenduaren errentamendu kontratua adjudikatzeko lehiaketa arautuko duen baldintza eta administrazio klausula partikularren agiriari. Agiri hori 10 egunez jarriko da jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

1. Erakunde adjudikatzailerak: Pobesko Administrazio Batzarra.
2. Kontratuaren xedea: adjudikatzea katastroan katastro zenbaki hauekin adierazten diren Pobesko Kontzejuko luberritzeen aprobetxamenduaren errentamendu kontratua:
 - 5 poligonoa: 187 lurzatia (5 golde lur)
 - 6 poligonoa: 814 A, 821 A, B, C, 825 A, B, C, E, 829 eta 830 A lurzatiak (86 golde lur)
3. Kontratuaren iraupena: 5 urtekoa, adjudikazioa egiten denetik aurrera; 2030eko irailean amaituko da.
4. Lizitazio oinarria: 5 euro/golde lur. Gehiago eskainiz baino ezingo dira hobetu eskaintzak.
5. Espedientea ikusgai dago Erriberagoitiko Udalean (Pobes), udal idazkaritzan.
6. Bermeak: behin betiko bermea adjudikazio prezioaren ehuneko 5 izango da.
7. Eskaintzak aurkeztea: eskaintzak Erriberagoitiko Udalaren bulegoetan aurkeztu behar dira, 10 egun naturaleko epean, iragarkia ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera, bulegoko orduetan.
8. Aurkeztu beharreko agiriak: administrazio klausulen agirian aipatzen direnak.
9. Gutun azalak irekitzea: Pobesko Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan, baldintza agiriaren arabera.
10. Beste argibide batzuk: ikus administrazio klausulen agiria.
11. Iragarki gastuak: adjudikaziodunak ordainduko ditu.

Pobes, 2025eko irailaren 8a

Lehendakaria
JESÚS SOBERA